

# DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 211. zkia. 2013ko apirila



**Irakurriz...**

**gozatu!**

# ZINEMAKO IRRIBARREAK

Zure ametsak egi bihurtzen ditugu



## ODONTOLOGIA OROKORRA

### ORTODONTZIA

Invisalign < BERRITASUNA  
Ezkutuko mihi-ortodontzia ikusezina < BERRITASUNA  
Zeramika eta zirkoniozko bracket oso estetikoak < BERRITASUNA

### PERIODONCIA

Diagnosi digital periodontala < BERRITASUNA  
Análisi mikrobiologiko periodontal eta genetikoak < BERRITASUNA  
Periodontitis-tratamendua kirurgiarik gabe < BERRITASUNA  
LASER diodoa  
Mentuat hortzoietan

### AHO-KIRURGIA

Ateratze zailak eta sustrai-hondarrak  
Azkenaginak ateratzea kirurgiarekin  
Barneko hortzak ateratzea

### INPLANTOLOGIA

Hezur eta hortzoi gabeziarentzako tratamenduak  
Hezur-birsortzea biomaterial bidez < BERRITASUNA  
Hortzoi-birsortzea  
Inplantologia transzigomatikoa < BERRITASUNA  
Hortz finkoak egunean bertan inplanteekin < BERRITASUNA

### PROTESI FINKOAK

Metalezko koroa libreak < BERRITASUNA  
Zirkoniozko koroa puruak < BERRITASUNA  
CAD-CAM koroak (ordenagailuz egindakoak) < BERRITASUNA  
Karillak

### MUGITU DAITEZKEEN PROTESIAK

Oklusioa eta ATM

### OKLUSIOAREN DIAGNOSI DIGITALA < BERRITASUNA

### ZURIKETA LASER bidez saio bakarrean < BERRITASUNA

### ODONTOPIEDIATRIA (PADI)

### ERRADIOLOGIA DIGITALA

### SUDUR-LASAIGARRIA < BERRITASUNA

### MUTUA ETA ASEGURUAK

GLOBAL CARD, EMESA PREVENCIÓN, MUTUA UNIVERSAL, FRATERNIDAD, CARREFOUR LIFE, IMQ, AZKARAN, PREVISORA BILBAINA, SANTA LUCÍA, AEGÓN/STONEBRIDGE, OCASO, AVANTSALUD, PADI...

## ZERBITZU BERRIAK

### ETENGABEKO ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera:

**8:00**etatik **22:00**etara

zapatuetan:

**10:00**etatik **14:00**etara

### LARRIALDIETARAKO TELEFONO BIDEZKO ARRETA

**24 orduz**  
GALDETU



### GALDETU 2. mediku-iritzia

Unibertsitate entzutetsuetan irakasleak gara.  
Ospea duen zentroa gara.

### ETXEZ-ETXEKO ARRETA-ZERBITZUA



Etxeko arreta:  
Pazientea jaso eta etxera itzuli  
GALDETU



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)

Promozio bereziak 2013ko maiatzaren 15era arte, kupoi hau aurkeztuz

**%20** Deskontua  
hortz-  
inplanteetan\*

\*Soilik hortz-inplanteetarako

**%10** Deskontua  
larunbatetan  
egindako  
tratamenduetan

LASER bidezko zuriketa  
Hortzetarako arkatx zuritzailea 525 €  
Higienea .....  
BESTELAKO PROMOZIOAK: GALDETU

**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale 2, 1. (Elexoste)  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50.  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.org

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Alazne Aiestaran, Igone  
Amesti, Ibaia Azagirre,  
Leire Elustondo, Estibalitz  
González, Asier Ibaibarriaga,  
Ane Saéñz eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA****ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIAK:**

Topagunea.

**LAGUNTZAILEAK:**

Amara Arriaga,  
Antonio Hernández 'Cuco',  
Fede Iturriagagoitia,  
Patxi López, Pello Mugarza,  
Valentín Mugarza,  
Jose Antonio Muñoz eta  
David Pavo.

**ARGAZKIAK:**

Virginia Alberdi, Igone  
Amesti, Ibaia Azagirre,  
Leire Elustondo, Errotabarri  
Eskubaloí Kluba, Marina  
Gondra, Estibalitz González,  
Valentín Mugarza eta  
Dorleta Vidal.

**PUBLIZITATEA:**

688 63 28 76.

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Olatz Loiola, Nora Mateos  
eta Olatz Vidal.

**TIRADA:**

2.360 ale.

**ISSN:**

1133-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-213/94.

*Drogeteniturrrik ez du  
bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako  
iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

## TARINA *Lúgano tarín. Carduelis spinus*



Gure artera negu sasoiari migratzen du, bere txio indartsuekin bazterrak alaituz, hain gustuko dituen haziak non topatuko alde batera eta bestera dabilela. Bere lumen kolore berde eta horixkek bizitasunez apaintzen dituzte zuhaitzen adar biluztuak. Koloreotan txirriskilarekin antz handia du, sarritan bata bestearekin nahastuz. Habia ere arbola puntan egiten du, kantu herrikoia ezagutuko balu bezala "... *adarraren puntan, puntaren puntan*". Talde zalea da, aldran ibiltzailea, eta bikote zalea ere zalantza barik: arra edo emea izan, doan lekura doala, ondoan beti laguntzua. Parajeotan ez da hegaztirik ugarienetakoa eta agertzekotan Abeletxen, Hanbre aldean... puntutxoetan.

## Hilabete honetan...

MUNDUKO AHOTSAK....4	BOTEPRONTOAN ..... 16
Osvaldo Guirola, Kuba	Silvia Onandia
ELKARRRIZKETA .....5-7	KIROLZALE ..... 17
Merche Cuadrado	Basilio Izquierdo
MALLABIAN ZER? .....8-9	IRITZIA ..... 18
Gazte Taldea	Ermua eta Mallabia Bizirik nahi ditugu
MOTZEAN..... 10-13	SALEROSKETAK ..... 19
Euskal Biruseko Batzar Orokorra	Saldu, erosi edo agurtu
ERMUAN ZER? ..... 14-15	ANTZINAKOAK.....20
Irakurri, gozatu eta oparitu	Ermuko eta Mallabiko argazkiak
	KALEKO INKESTA .....21
	Ermuko eta Mallabiko jendearen iritziak
	AGENDA .....22

### Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

# Osvaldo Guirola

Osvaldo Guirola 25 urteko kubatarra da. Orain dela bi urte etorri zen Habanatik ehun bat kilometrora dagoen Matanzas hiritik. Etorri zenetik Ermuko EPA-n dihardu euskara ikasten eta azkeneko Korrikan Euskal Blusaren izenean lekukoa eraman zuen.

## - Aldaketa erraza izan zen Matanzasetik Ermura etortzea?

Erraza izan zen nahiz eta Kubaren eta Ermuaren artean klima eta kulturaren ezberdintasun handiak egon. Esango nuke erraza izan zela hemengo bizitzara ohitzea.

## - Zerk harritu zintuen hasieran?

Mendiek eta kolore berdeak. Arkitekturen ere harritu ninduen, besteak beste mendietan baserriak ikusteak asko harritu ninduen.

## - Zer nolako herria topatzea espero zenuen?

Banekien Ermua Matanzas baino txikiagoa izango zela argazkiak ikusiak ni-tuelako interneten. Beraz, banekien zer nolako herria zen Ermua. Aldez aurretik gainera ondo deskribatu zidaten.

## - Zer da gutxien gustatzen zaizuna?

Eraikin asko dagoela, nire herrian aldiz gehiengoak etxebizitza familiabakarrean bizi ginen. Hemen oso pilatuta bizi gara.



Matanzas, Kuba

## - Eta gehien?

Jendeak Ermua polita ez dela esan arren niri asko gustatzen zait. Batez ere, iluntzean egoten den giroa gustatzen zait, lagun taldeak biltzen direnean. Bestalde bere kokalekua asko gustatzen zait, itsasoa eta mendiak gertu ditu, baita hiru hiriburuak ere.

## - Zer irabazi duzu? Zer galdu?

Galdu ezer ez, irabazi asko. Jende berria eta kultura berria ezagutu ditut. Etxetik beste kultura batera irtetea asko ikasten da eta norbera ere aldatu egiten da. Ez dut gogoratzen nor esan zuen zita hau "Utzi munduak zu alda zaitzala..." (Deja que el mundo te cambie).

## - Kultura desberdinak gara?

Badago desberdintasunik, musikan, artean, izateko eran, janzkeran... baina elkar ezagututakoan desberdintasun horiek arindu egiten dira.

## - Zer nolako esperientzia izan zen Korrikako lekukoa eramatea?

Zaila da deskribatzea. Hainbeste jende, nagusi eta gazte, Euskal Herriko herri guztietan zehar euskararen alde bat eginda ikusteak ez du parekorrik! Oso esperientzia atsegina eta hunkigarria izan zen.

## - Zer moduz euskara ikasketak?

Ondo, aurtengoa bigarren urtea da EPAn euskara ikasten ari naizena. Talde txikia izan arren, gelan giro ezin hobea daukagu. Irteerak ere egiten ditugu, orain dela gutxi Irun bisitatu dugu eta ikasturtea bukatu aurretik beste txango bat egingo dugu.

## - Jarraitzeko asmoa duzu?

Bai, eta euskaraz ikasi nahi dutenak animatu egiten ditut izena ematera, ia taldea handitzen dugun!

Ane Saénz

**SAN ANTONIO**

OKINDEGIA  
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63  
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

**AIZ**

**AIZ**

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**ZABAL**

**ERMUA**

**IKASTOLA**

1968tik Ermua euskalduntzen



Argazkia: Marina Gondra

**Merche Cuadrado, koplak abeslaria:**

## **“Abesten dudanean, Jainkoak emandakoa baino ez dut eskaintzen”**

Badajozen jaio zen Mercedes Cuadrado (Quintana de la Serena, 1956). 13 urterekin etorri zen Ermura eta ordurako bazuen barnean abesteko zaletasuna. Txikitan, irrati ondoan egon eta entzundako abestiak buruan gordetzen zituen, gero etengabe kantatu ahal izateko. Koplak ditu gustukoak, nahiz eta bere emanaldietan fandango eta rantxera batzuei tartetxoa eskaintzen dien. 2012an CDa grabatu zuen, ‘La Ruiseñora’, eta berak sortutako pare bat abesti entzun daitezke bertan. Urtea bukatu baino lehen, hainbat saio eskainiko ditu.

- *Zergatik aukeratu zenituen koplak?*

Betidanik abestu ditut etxean. Emigratzea tokatu zitzaidan, haurtzaroa eta oroitzapenak laga behar izan nituen eta herriminari kantatzen hasi nintzaion. Abesti hauek nire sorterrira ekartzen didate burura.

- *Flamenkoa da?*

Ez. Kopla edo 'Canción Española' flamenkoa baino arinagoa da: Isabel Pantojak abesten dituen abestiak, pasodobleak... Benetako istorioak kontatzen dituztela diote abesti horiek.

- *Eta nola eman zenuen jendaurrean abesteko lehen urratsa?*

Lehenengo eta behin akonpainamendua bilatzen hasi nintzen, hau da, musika. Karaoke baten moduan abesten dira abesti hauek, hau da, musika alde batetik doa eta abeslariak, behar den unean, abesten hasi behar du. 1991n kantu batzuen musika lortu eta serio hartzen hasi nintzen. Hurrengo urtean zinta bat grabatu nuen.

- *Zabalkunde handia izan zuen zinta hark?*

Dezente, nire senarrak hainbat irratitara bidali zuelako. Horren bitartez TVEra joateko aukera izan nuen, Maria Teresa Camposen programara. Artista berriak aurkezten ziren bertan. Telefonoz deitu zidaten, baina ni tailerlean nengoen lanean eta senarrak baietza eman zuten nire izenean.

- *Esperientzia polita izan zen? Zer nolako oroitzapenak dituzu?*

Prado del Rey-n dauden estudioetara joan nintzen. Abesti bakarra kantatu behar nuen eta nire alaba eta haren lagun bat dantza egitera etorri ziren. Gloria Fuertes zegoen, Terelu gaztetxoa, Los Chunguitos... eta jantokian Paco Valladaresekin topo egin genuen. Guztiok bizi beharreko esperientzia da, telebistan agertzen direnak desmitifikatzeko balio duelako. Pertsona arruntak dira.

- *Eurekin berba egiteko aukerarik izan zenuen?*

Programa horretan artista beteteranoek artista berriak bultzatu behar zituzten. Niri 'Los Chunguitos' tokatu zitzaizkidan eta gogoan dautkat haietako batek esan zidala kantatzen jarraitzeko eta oinak lurrean izateko beti.

- *Eta lurrean dituzu?*

Bai, pertsona arrunta naiz. Ermuarra %100, nahiz eta kopla edo flamenkoa kantatu!

- *Dagoeneko CDa kaleratu duzu, ezta?*

Bai, 'La Ruiseñora' deitutako diskoa grabatu nuen iaz. Kantatzen hasi nintzenean abesti bat idatzi nion Extremadurari, 'Quiero cantarle a mi tierra' izenekoa eta aipatutako zinta horretan grabatu nuen. Kontua da jendeari asko gustatzen zaiola eta emanaldietan be-



ti eskatzen didatela. Abesti hori behar den bezala grabatuta egon zedin egin nuen CDa eta 1.000 ale kaleratu ditut.

- *Orduan abestiak ere sortzen dituzu?*

Bai, CDan dagoen 'Manantial de coplas' ere nik idatzitakoa da.

- *CD horretan hamaika soineko ezberdin jantzita ikus zaitzakegu. Non erosten dituzu?*

Hasieran eramaten nituen soinekoak Ermuko bi modistek egiten zizkidaten. Gaur egun ez du merezi neurria egindako soinekoak erostea. El Corte Inglesean edo Andaluziako edozein dendatan eros ditzakezu. CDan agertzen den soineko bat nire seme-alabek oparitu zidaten, El Corte Inglesean erosita; beste batzuk Miguel Reyes Sevillako diseinatzaileak utzitakoak dira eta besteak Badajozeko denda batean erositakoak.

- *Makina bat emanaldi egin dituzu dagoeneko. Baten batek oroitzapen berezirik utzi dizu?*

Bai. 1997. urtean uholdeak egon ziren Badajozeko herri batean. Erreka batek gainezka egin eta hogeita piku lagun zendu ziren. Euskal Herriko hainbat herritan, kaltetuentzako dirua biltzeko kanpainak egin ziren, tartean, Gasteizen. Bertara gonbidatu ninduten eta, helburua oso atsegina ez bazen ere, emanaldi horrek benetan markatu ninduen. Jendeak nire abestiekin negar egiten zuen, ezbehar horretan gertatutakoa jasotzen zuen abestia sortu bainuen.

- *Zer sentitzen duzu jendaurrean kantatzean?*

Aurreko astean oso urduri egoten naiz, dena ondo irteeta nahi dudalako. Baina eguna heldu eta eszenatokira igotzean, urduritasuna ahaztu eta dena ematen dut, jendeak merezi du-eta. Abesten

**"Kontzertua egin eta gero pozarren egoten naiz hilabetez"**



dudanean, Jainkoak emandakoa baino ez dut eskaintzen, txikitatik dudak dohaina. Uste dut jendeari zor diodala daukadan onena ematea.

**- Non ematen dituzu emanaldi gehien?**

Inguruko eskualdeko etxetatik deitzen didate batez ere. Kanpora joateko aukera ere izaten dut, Andaluziara, esaterako, nire musika estiloa oso estimatua delako bertan, baina ekonomikoki ez da errentagarria. Ordaintzekotan, gutxi ordaintzen dute eta gaur egun, batez ere, merketxo abesten duen abeslari mordoak dago inguru horietan!

**- Ermuan ere zu ikusteko aukera izan da?**

Bai, plazan eta Andaluzia eta Extremadurako zentroetan. Peña Betika desagertu

da, baina lehen nagusiei eta Gorabideko kideei omenaldia egiten zieten urtero eta parte hartzen nuen. Nik ez daukat dirua inori emateko, baina zerbaiten alde kolaboratzea eskatzen badidate, nire esku dagoena ematen dut, poz-pozik gainera. Berdin dio Andaluziakoak, Extremadurakoak, Gailegoak edo Euskal Herrikoak izan.

**- Non entseatzen duzu?**

Etxean. Bakarrik egoteko desiratzen nago abesten hasi ahal izateko. Kaskoak ipini eta denborak neurtzen hasten naiz: sarrerak eta xaramelen, gorgoritoen, iraupena neurtzea oso garrantzitsua da.

**- Honetaz gain zure lana daukazu?**

31 urtez TVAn egin dut lana, baina 2003an erretiroa

## “Jende berriari esker koplak bizirik mantenduko da”

eman zidaten. Abestea nire hobya da eta erretiroa hartu nuenean, autoestimua igotzeko erabili nuen. Orduetik aurrera ere, emanaldia eman eta gero pozarren egoten naiz hilabetez. Horrez gain... informatika ikastaroak egin ditut, gidabaimena atera dut eta igerilekura noa. Ez dakit geldi egoten!

**- Gainera pertsona antolatua zara...**

Bai, jendea deitzen hasi zenean koadernotxoa hartu nuen. Bertan nire abestiak idazten ditut, datak... Horrez gain, kontzertuetara eramaten ditudan jantziak apuntatzen ditut. Horrela, leku berera arropa bera bi bider eramatea saihesten dut.

**- Abesteaz gain, nola disfrutatzen duzu koplaz?**

CanalSur-ren, Andaluziako telebistan, koplak lehiaketa dago larunbatero eta larunbatero ikusten dut. Batzuetan epaimahaiaren erabakiekin ez nator bat, baina... Gainera, Isabel Pantoja miresten dut (abeslari gisa baino ez), Marifé de Triana...

**- Koplan errelebo aldaketa bermatuta dago?**

Bai, Andaluzian jende gazte mordoak abesten du, baina musikagileak falta dira. Antzinako kantak abesten jarraitzen dugu... Hala ere, jendearen pertzepzioa ere aldatu da. Lehen gaizki ikusita zegoen koplak zalea zinela esatea eta pentsaezina zen José Mercé, Miguel Poveda edo India Martínez bezalako abeslariak Ermura etortzea. Niri koplak klasiako gustatzen zait, baina onartu behar dut jende berriari esker koplak berritzen doala eta bizirik mantenduko dela.

**- Noiz emango duzu hurrengo emanaldia?**

Maiatzaren 4an Santurtzian abestuko dut eta irailaren 6an Altsasura joango naiz. Uztailaren amaieran edo abuztuaren hasieran hainbat saio eskainiko ditut Extremaduran.

Informazio gehiago jasotzeko eta abestiak entzuteko: <https://www.facebook.com/mercedes.cuadradocruz1>

Dorleta Vidal



Marina Gondra

**URRETA** burdindenda

- \* Etxea
- \* Tresneria
- \* Brikolaia
- \* Rielak
- \* Giltzak
- \* Zerrailgintza
- \* Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOAK**  
**INPRIMAKETAK KAMISETATAN**

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

**ONTINDIA**  
**HARATEGIA**

Etxean egindako odoloste eta txorizoak

Kantabria zeharbidea 1 Tel. 943 10 85 44  
 48260 - ERMUA Mug. 678 64 85 41

**TELEFLOR INTERNATIONAL**

Zubiaurre 14  
 Telef. 943 17 28 88  
 48260 ERMUA

**EGUZKILORE**

## Mallabiko Gazte Taldea:

# “Herrixen ikusten doguzen gabezi danak bete nahi doguz”

**Herrixen ikusten dittuen gabezixei aurre egiteko, eta beste era bateko gizarte antolaketa bat posible dala erakusteko gazte taldie eratu dabe Mallabixen.**

**- Noztik batzen zaie?**

2012ko uztaillien hasi gendun mailla nazionalien ERNAI-ren eratze prozesue. Prozesu hori otsaillien amaittu zan eta ordudik herrixen egin biherreko ekintzak eta dauezan beharrianak aztertzen gabiz. Horrek dakarrena da, bi astero batzeko ohiturie daukegun arren, beharri-zanen arabera alkartzie.

**- Zenbat lagunek osatzen dozue taldie?**

10 lagun elkartzen gara eta gustora onartuko geunke laguntzeko eta parte hartzeko prest dauen edozein partaide. Nahiz eta hasiera baten ez batzarretara etorri, beste jente batek be badauke laguntzeko gogue. Guk atiek zabalik daukaguz zeozer aportau nahi dabenantz, bai aisialdi eredue aldatzeko, euskerian erabilpena lantzeko....

**- Zelako gaixek lantzen dozuez batzarretan?**

ERNAI taldian helburuek estatu independente, feminista eta sozialista izetie die eta guk helburu ideal lez horrek daukaguz. Gai honek ardatz hartute, herrire begire

lan egittie daukagu helburu eta horregaittik herrixen hainbat arlo landu nahi doguz: euskerie, birziklapena, etxebizitzie, aisialdixe, gazte mugimendue...

**- Eskualdeko gazte taldiekin harremanik badaukezue?**

Bai, badaukegu eskualde maillan koordinaziñue, batez be herri askok errealitate eta burruka antzerakuek euki leikiezalako, etxebizitzie edo euskerie esate baterako. Horrez gain, eskualde maillako plangintzak egiteko be bali-xo dau koordinaziño horrek.

**- Ze helburu daukeuz?**

Gaztiok herrixen ikusten doguzen gabezi danak betetzie ahal dogun neurrixen: gaztiok elkartzie, alkar ezagutzie eta herrixe eraldatu eta ahal dogun neurrixen piztie.

**- Horretarako zer da egiten dozuena?**

Hasi berri gazenez lehengo landu nahi doguzen ar-luek identifikatzen gabiz. Aurrerago gure helburuek ekintza ezberdiñek antolatuz gauza horrei aurre egittie izengo zan. Herriko beste taldiekin be harremanetan jartzie gure dogu, amanko-



-antolakuntza: independentzia -sozialismoa -feminismoa

munien daukaguzen ardurak lantzeko ta ekintzak alkarrekin antolatu ahal izeteko. Gainera kontuen hartu bida, guk egitten doguzen ekintza danetarako guk atezratzen dogule dirue, autogestiñuen siñisten doguleko, horrek lan gehixa ekarri arren, zatisfazinue be gehixa dakarrelako.

**- Aurrera begire ekintzarik egiteko asmorik badaukezue?**

Hemendik eta irailera bitartien arazuen identifikaziñuen zentrauko gara batez be, elkartiekin harremanduz eta gure proiektue herrixen zabalduz. Horrek ez dau esan gure ez dogunik ekintzarik egingo.

Oin arte lez, bidixo emanaldi batzuk egiteko asmue daukegu Izar Gorri elkartiaz batera; ekain bueltarako proiektu / sorpresa polit bat be badaukegu... Horrez gain, maiatzeko Hamabostaldi Kulturalien hitzaldixe antolatu dogu. Rokodromo txikitxo baten proiektue be badaukagu martxan. Egin doguzanen artien sagardotegire iteerie, parkien murala... Aurrera begireko ekintza batzuk badaukaguz, baina idea barrizaille gehixa daukenak atiek zabalik daukez!

**- Zein da zuekin harremanetan jartzeko bidie?**

Email bidez: mallebigazte@gmail.com. Edota Tuenti eta Facebook bidez: Mallebiko gazte taldie/mallebikoernai.

Igone Amesti eta Ibaia Azagirre

**Ferreteria/Burdindegi**

- \* Burdindegia
- \* Tresneria
- \* Sarrailagintza
- \* Giltzak / Aginte automatikoak
- \* Ontziteria / Kopak / Mahai-tresnak
- \* Opari artikulua

**ANBOTO**

Zubiaurre 25, Ermua ☎ 943 17 69 76 @ fer\_anboto@hotmail.com  
www.ferreterianboto.es

**KRABI**

Ileapaindegia  
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA



## AUZOLANAZ HOBETZEN

Datorren maiatzan 11rako auzolana antolatu gure da Mallabixen. Egun horretan herrixen ikusten dien beharrei edo zeregiñei irtenbidie jarri nahi jakue, eta bestiek beste, parkeko kolunpuxuek eta aulkixek atontzeko aprobetxatuko da egun hori. Ixe galdute egon dan ohiturie izen arren, azken urtietan gero eta indder gehixa hartzen dabil auzolana inguruen. Mallabixen be, danon inplikaziño eta indderraz herrixe hobetzie da asmue. Hori dala eta, animatu eta parte hartu auzolanien!

## HERRI BARATZAK

Igezko maiatzien egin zan herri baratzen inguruko lehenengo batzarra. Harrez geroztik, auzolanien lan ezberdiñek egin zien proiektue aurrera ataratzeko eta hainbat ikastaro be bai interesatuek ortu ekologikuan inguruen formatzeko. Ortuek emon aurretik, lurre lantzie falta da, umedade kontuek diela eta lan hori atzeratu da eta. Behin hori eginde, topografuek partzelak markau eta auzolanerako azken deialdixe egingo da etxolaii beste barniz kapa bat emon eta etxolan ortuek lantzeko tresnerixie eta abar kokatzeko. Hori guztiori egin ondoren, partzelen adjudikazinue egingo da zozketa bittartez. Guztire 13 lagunek emon dabe izena. Honetaz gain, auzo lanien arittu dien lagunekin elkarlanien, ortuen eta instalaziñuen aurkezpena eta inauguraziñue egitteko asmua azaldu dau Udalak. Aurkezpen hau maiatzan 11an, 13:00etan egingo da; holan herritar danak gonbidatute dagoz bertaratu eta egindekue ikusteko.

### AITXIXOKO MARIXELEN JAIXEK 2013

APIRILAK 30, martitzena

20:00: Txopo jasotzie, kanpai iraoketie eta txapligu jaurtiketie.

21:30: Auzo afarixe Goizeder Jatetxien. (Tiketak bertan salgai, 30?).

MAIATZAK 1, eguaztena

11:00: Mezie.

Mallabiko trikitilarixek girue alaitzen.

Mallabiko dantza taldian saieue.

12:30: Gizon probie 500Kg harrixakin:

Iñigo Aurrekoetxea Euskal Herriko Txapeldune 80 kilotan.

Gorka de la Concepción

Aitor de la Concepción

17.30ean: Asto probak: Txibiter (Azkoitia)

Vitorio Celaya (Eibar)

Goizeder Jatetxea (Mallabia)

Lupiortu Goikoa (Erandoio)

# san jurkixek

MALLABIKO BERANO TXIKI AUZOKO JAIXEK 2013KO APIRILEK 27 ETA 28

## zapatue

Setan SANTUEI KONTUEK  
ESAN ETA JANTZI  
7etan TXOPUE ALTXTAZIE  
ostien AUZUNAKUENDAKO AFARIXE

## domekie

goixien  
11etan MEZIE

jarraixen MALLABIKO GAZTE ALAI  
DANTZA TALDIE

12:30ean BERTSOLARIXEK  
Beñat Ugartetxea  
Aitor Sarriegi

ostien UMIENTZAKO JOLASAK: Oilar  
harrapatzie, aukien jolasa,...

SALDIE TA TXORIXUE DUEN

## atsaldien

Setan UMIENTZAKO JOLASAK: lapiko  
apurtzie, bokor batzie,...

6:00etan HERRI KIROLAK  
Zelai eta Bihurri

7:00etan AGARRERA OSTERIE  
denbora mugatuan (6 urtetik 12ra  
eta helduak).... Irabazientzat  
sarixe



laguntzailie: Mallabiko Udala

Jai Batzorde ez da gerta daitezken kalbez kargu eben

## KULTUR HAMABOSTALDIA

Maiatzaren 8a eta 19a bitartean Mallabiko Hamanostaldi Kulturale burutuko da. Hainbat hitzaldi, tailer, antzerki, aurkezpen, jai eta kontzertuez gozatzeko aukera egongo da, Udala eta Herri Elkartearen elkarlanari esker. Lehen ekitaldia 'Banca Etika. Beste ekonomia bat posible da' hitzaldia izango da, Kultur Etxean, 19:30ean eta hurrengo egunean, hilak 9, bizikletaren mekanikari buruzko tailerra emango du Koldo Praderak, Kultur Etxean baita ere, baina 19:00etan.

## Proba-Leku

Heapaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A

Tel. 943 17 05 42

## Arinka

Ume eta gazteentzako  
zapata-denda...

40ra  
arteko  
zkiak.  
ditugu

VI Centenario 17 (Doan zapata-denda ohian)  
ERMUA - Bizkaia / 943 17 41 26

## Udal Euskaltegia

Teresa Murga Eraikina  
Goienkale z/g 2. solairua  
ERMUA · 943 170 925  
euskaltegia@udalermua.net

# OUTUMURO

## Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak  
Aukera handia TE eta INFUSIOETAN

Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

## Igeltserotza - Iturgintza

# Errekalde

Esteban Goikoetxea

Errekalde baserria, 1  
48260 ERMUA Bizkaia  
Tel: 662 51 42 68  
errekalde.gm@gmail.com

**HARKAITZ CANO  
IRAKURKETA KLUBEAN**

Maiatzaren 20an Harkaitz Cano idazle lasartearra izango da Ermuko Irakurketa Klubean. Ekimen horretan parte hartzen duten irakurleek idazlearen 'Twist' liburua irakurtzen dihardute dagoeneko eta honekin batera Lobiano Kulturgunean komentatu ahal izango dute 19:30etik aurrera.

**ELI DE LA CRUZ ETA  
ALAITZ FERNÁNDEZ,  
EUSKADIKO ATEZAIN  
ONENAK**

Apirilaren hasieran Euskadiko Jubeniletako Eskubaloitza txapelketa jokatu zen Elgoibarren eta bertan Ermuko

Errotabarri Eskubaloitza Kluba parte hartu zuen. Emaitza onak lortu ez zituen arren, Eli de la Cruz ermuarra atezain onena izendatu zuten. Kadeteek, berriz, Barakaldon jokatu zuten Euskadiko Txapelketa eta bertan ere Errotabarriko kide batek jaso zuen atezain onenaren saria, Alaitz Fernándezek. Zorionak bioi!

**Euskal Birusak hainbat ekimen burutuko ditu**

Apirilaren 24an urteko **Batzar Orokorra** egingo du Euskal Birusa Euskara Elkarateak. Lehen deialdia 18:30ean eta bigarrena 19:00etan izango da. Lobiano Kulturgunera hurbiltzen diren bazkideek 2012ko kontuen berri eta 2013rako Elkarateak duen asmoen berri jaso ahal izango dute.

Apirileko **Ermuan Kantuan**, berriz, hilaren 27an burutuko da, plazatik hasita, 12:30ean. Oraingo honetan Beñat Aiartza gitarra-joleak alaituko du Euskal Birusak antolatutako kalejira hau.

Bestalde, **Herri Urratsek** 30 urte beteko ditu maiatzaren 12an eta jaialdia zuzenean ikusi nahi dutenek Euskal Birusak antolatutako autobusean joan ahal izango dira Senpereraino. Helduentzako 10 euroko prezioa eta umeentzako 5 eurokoa. Izen ematea Elexosten egingo da (Erdikokale zeharbideko 2. peoran), baita telefonoz (943179350 / 688632874) edo posta elektronikoen bitartez (euskalbirusa@euskalnet.net). Izen-emate epea autobusa betetzen denean bukatuko da.

**Erakusketa antolatuko du Zipriztintzen taldeak**

'Gizonok, berdintasunaren alde; gizonok, sexismoaren kontra' izeneko erakusketa antolatu du Berdintasunaren Aldeko Zipriztintzen gizon talde ermuarrak. Emakumearen Topalekuan egongo da ikusgai maiatzaren 6tik 31ra, dohainik (astelehenetik ostegunera, 09:30-13:30 eta 16:30-20:00; ostiraletan, goizez bakarrik). Erakusketa antolatzeko, Bilboko Deustu-San Inazioko Modulu Psiko-sozialak (2012-Emakunde Saria), 'Piper Txuriak' Bilboko Gizon Elkaratea eta Ermuko Udaleko Berdintasun Sailaren laguntza jaso du Zipriztintzen taldeak.

**Aurtengo 'Gaua Zabalik', maiatzaren 25ean**

Ermuko Merkataria eta Ostalarien Elkarateak 'Komertzio, aisia eta kulturaren Gaua Zabalik' ekimenaren hirugarren edizioa burutuko du maiatzaren 25ean. Elkarteko kide diren dendak 22:30etik 1:30era egongo dira zabalik eta ekimenaren helburua Ermua eta bere merkataritza sustatzea eta ezagutzera ematea da.

**OINAK**

**LEIRE MAYORA**  
**PODOLOGOA**

Erdikokale 1, 1. A  
48260 Ermua  
☎ 943 17 47 44

Zure publizitatea...

**drogeteniturri**

aldizkarian

943179350 · 688 632876  
Erdikokale 2, 1 · drogeten@gmail.com

**Quetzal** berria!!

[arropa, bitxiak, opariak...]

ekinetik aurrera  
**Eibarren** ere

Goienkale, 9 · 48260 ERMUA 943170065  
Zuloagatarren, 7 · 20600 EIBAR 943531500

**MENDIOLA**  
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19  
Telefona 943 17 22 43

48260 ERMUA  
(Bizkaia)



**Ignacio  
Zuloaga  
Institutua**  
**EIBAR**



**Aurrematrikula Maiatzaren 2tik 14ra**

**Batxilergoak:** Arteak - Humanitateak eta Gizarte Zientziak - Zientziak eta Teknologia



Jardifeta 3 Eibar · Tel.:943208349 · Fax:943206048 · www.ignaciozuloaga.net · E-mail:012055aa@hezkuntza.net

**IZEN EMATE EPEA ZABALIK**  
**Maiatzaren 2tik 13ra,**  
**0 eta 2 urte bitarteko umeentzat**  
**Irailean, urrian eta azaroan hasteko**



**ATE IREKIAK:**  
**Maiatzaren 2an**  
**eta 9an**  
**(17.30etan)**

**Hurrengo matrikulak:**


**URRIAN:** abenduan, urtarrilean edo otsailean hasteko.

**URTARRILEAN:** martxoan, apirilean, maiatzean edo ekainean hasteko.

**ERMUKO HAURRESKOLA**  
**Iparragirre,15 (Antzoki parean)**  
**943 17 64 31**  
**ermua.ermua@haurreskolak.net**

**Haurreskolak**

[www.haurreskolak.net](http://www.haurreskolak.net)



## GANTXILLO, ARDO DASTAKETA ETA KOKTELAK BERBALAGUNEN

Berbalagun egitasmoaren menuaren barruan, hainbat ikastaro egingo dira maiatzaren 7an, 14an eta 21ean gantxilloa egiten ikasteko oinarriko urratsak emango dira, Lobianon; 2an eta 9an, ardo dastaketa eta koktel eta konbinatuen prestaketaren inguruko kontuak ikasi ahal izango dira Eskilarapeko elkarteak. Bestalde, Ermuko Denboraren Bankuak hitzaldia eskainiko du maiatzaren 23an, Lobianon. Aipatutako ekitaldi guztiak 19:00etan izango dira.


Maiatzaren 11n, 11:00etan, berriz, 'Ermua ezagutuz' ibilbidea egingo da, herria 60. hamarkadaren aurretik nolako zen ezagutu ahal izateko. Ekimen guztiak doan izango dira eta izena emateko aurreko astean deitu beharko da 639414205 telefonora edo [ermua\\_berba@ae.org](mailto:ermua_berba@ae.org) helbidera mezua bidali.

## SANTIXAU JAIETAKO KARTELA AUKERATZEKO LEHIAKETA MARTXAN DA

Aurtengo jaiak iragarriko dituen kartela aukeratzeko epea zabalik dago jadanik. Aurkezten diren proposamenek 45x30zm. eta 65x40zm. arteko neurriak izan beharko dituzte eta Abiapuntun entregatu beharko dira ekainaren 11 baino lehen. Irabazleak 600 euro eskuratuko ditu. Argibide gehiago, Ermuko Udalaren webgunean.

## Maiatzaren 18an egingo da aurtengo VertigoRock

Red Blaze, Multa, Cohen, Stupenda Jones eta Non Servium taldeek eskainiko dituzte kontzertuak plazan (20:15ean hasi eta 3:00ak bitartean) eta Alerta eta Khaus taldeek kalean joko dute (17:00etan hasita). VertigoRock jaialdiaren 7. edizio honetarako hainbat berrikuntza prestatu dituzte antolatzailerak. Tartean, aurkezpen jaia egingo dute maiatzaren 11n Lurpe tabernan, eta bertaratzen direnek Ero eta Sindrome Peter Pank taldeak entzuteko aukera izango dute. Jaialdiaren bezperan, beste jai bat egingo da, Eskilarapekon, La Muerte sin Capucha eta Skandalo Publiko taldeekin eta jarraian DJ lanei ekingo diete antolatzailerak batzuk. Maiatzaren 18an umeentzako ekintzak eta 'Jam Session'a egingo dira goizean, eguerdian Andrabanda Feministak joko du eta arratsaldean Akodan Bozine elektrotxarangak herriko kaleak alaituko ditu. Gainera, egun osoan zehar tatuajeak eta piercing-ak egiteko aukera egingo da, prezio berezietan.



## Eskolarteko txirrindulari topaketak maiatzaren 19an

Ermuko Txirrindulari Elkartek Bizkaiko Eskolarteko Txirrindulari Topaketak egingo ditu urtero legez. Topaketa horretan 5 eta 14 urte bitarteko umeek parte hartu ahal izango dute (aurreko urteetan adin tarte honetako 200 ume inguruk parte hartu izan dute). 11:00etan hasi eta lehiakorrak ez diren 6 lasterketa egingo dira, umeek adinaren arabera parte har dezaten, eta bukatutakoan ume guztiak jasoko dute saritxoa. Ekimen horrek BM Supermerkatuen eta Bildu enpresaren laguntza jasotzen du eta Alberto Lasuen, Mari Jose Goigana, Esteban Goikoetxea eta herriko hainbat gurasok bultzatzen du. Elkartek herriko gurasoak animatu nahi ditu, seme-alabak txirrindularitzan apuntatu ditzaten.



## 'Ermua Mugi!' zerbitzua abiatu du Udalak

Zerbitzu honek jarduera fisikorako eta kirolerako pertsonalizatutako doako orientazioa emango du, Ermuko Udaleko Kirol Zinegotzigoak antolatuta. "Zerbitzuaren helburua da, Ermuko herritarrak bizitza estilo osasungarriak hartzeko informatzea, hezte eta aholkatzea da, ohiko jarduera fisikoaren eta elikadura-ohitura osasungarrien bidez", diote arduradunek. Horri esker, jarduera fisikoen programa eta aukera ezberdinei buruzko informazioa, aholkularitza eta pertsonalizaturiko orientazioa jaso ahal izango da, besteak beste. Hitzordua adosteko, 661642531 / [ermuamugi@udalermua.net](mailto:ermuamugi@udalermua.net). Ordutegia: asteazkenetan, 16:00etatik 20:00etara.



Drogeteniturrri, 211 zkia.

solozabal  
tabakoak

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33



SEHIGA



LAN-BABESA

Goienkale kalea (Ermua)  
Tel: 943 172 454 / Fax: 943 033 821  
[sehiga.proteccionlaboral@gmail.com](mailto:sehiga.proteccionlaboral@gmail.com)



Imanol Zubelzu (Tolosa, 18 urte) Gastronomía eta Sukaldaritzaren Arteak graduko lehen maila ikasten ari da MONDRAGON UNIBERTSITATEKO Basque Culinary Center-ean.

## “Kultur aniztasuna unibertsitate honen altxor handienetako bat da”



- *Zergatik aukeratu zenuen Gastronomía ikastea, eta zergatik Basque Culinary Center-ean?*

Gastronomiaren mundua txikitatik izan dut maite, azken urteetan nire aukeren artean zegoen. Gastronomiak garrantzi nabaria du geure bizitza eta gizartean, nahiz eta askotan merezi duen arreta ez eskaini. Baina ez nuen gustuko ikasketarik aurkitzen alor honetan. Basque Culinary Center-en berri izan nuenean segituan piztu zitzaidan nire barnean grina eta ilusio hori berriz; eta unibertsitatea ezagutzera etorri nintzen. Gastronomiaren mundutik bizi behar banu argi neukan ikasketa orokor bat izan nahi nuela, eta egia esan unibertsitate honen eskaintzak itsuturik ekarri nau honaino

- *Eta zer moduz moldatzen ari zara orain arte?*

Oso gustura, izugarriko esperientzia da hezkuntza, kultura aldetik... Sukaldean pixkanaka hobetzen zoaz, lagun giroan ere oso gustura. Gradu honi ere pixkanaka hartzen zaio neurria.

- *Nolakoa da BCCko hezkuntza metodologia? Alde praktikoari garrantzi handia ematen zaio?*

Hitz gutxitan laburtu beharko banu “errealitatean oinarritua” dela esango nuke. Alderdi praktikoak garrantzi handia du. Baina ezin liteke praktikan

“Hezkuntza metodologia errealitatean oinarrituta dago. Alderdi praktikoak garrantzi handia du, baina ezin liteke praktikan hobetu teorikoki aurreratzen ez bazoaz”

hobetu teorikoki aurreratzen ez bazoaz. Hau da; gure ikasteko eran sarritan helburu bakarra ez da gauzak ongi egiten ikastea; baizik eta ongi egiteko beharrezkoa den jakintza hori menperatzea. Beraz teoriak ere garrantzia du, eta pixkanaka alor guztietan goaz osatzen. Talde lanak eta hezkuntza kooperatiboa garrantzi handiko zutabeak dira. Beti ere errealitatea ezagutzuz

kanpoan zer dagoen jakinaz eta horretarako prestatuaz.

- *Sukaldatzeaz aparte, beste gauza gehiago ere ikasten duzue, ezta?*

Bai. Sukaldaritzaren garrantzitsua da baina gradu honek gastronomiaren mundurako irekitzen dizkizu ateak. Gastronomía bere osotasunean oso aniztasuna da, beraz mota askotako ikasgaiak beharrezkoak zaizkigu. Historia, enpresa, estatistika, biologia... gastronomiak uste baino alor gehiago hartzen ditu bere baitan

- *Zer da gehien gustatzen zaizuna?*

Kultur aniztasuna, dudarik gabe unibertsitate honek duen altxor handienetarikoa bat da. Ez dakigu zeinen aberasgarria den kultur desberdinetako jendearekin ikasi eta talde-lanean aritzea. Begiak irekitzen dizkigu sarritan. Bestalde, bizi ditugun une latzetan errealitatea ezagutu, eta errealiterako prestatu nahi zaituen gradu batean ikastea oso gustuko zait.

- *Etorkizunean, nola enfokatuko zenuke zure ibilbide profesionala?*

Oraindik ez daukat oso argi, egia esan bide berriak, aukera berriak ikusten ditut egunak aurrera joan ahala... eta denborak esango du. Sukaldari, enpresaren batean, ikerketan, gizakion elikagaiak aztertzen, nire negozio bat abian jartzen... Hamaika dira etorkizunera begira ikusitako aukerak.

## VII. 'Irakurri, gozatu eta oparitu' kanpaina martxan da Ermuan eta Mallabian

**Irakurzaletasuna bultzatzeko egitasmo hau Euskal Herri osoko 24 herritan gauzatuko da. Tartean Ermuan, eta estreinakoz, Mallabian ere, Orraitio Euskara Elkartek antolatuta, Ikastetxeko Guraso Elkartea eta liburutegiaren laguntzarekin.**

Liburuaren Nazioarteko Egunean, apirilaren 23an, abiatu zen 'Irakurri, gozatu eta oparitu' kanpainaren aurtengo edizioa, zazpigarrena. Ekimen honen bultzatzaile den Euskaltzaleen Topagunearen arabera, "inoizko herri kopuru handienean ipiniko da martxan, 24tan hain zuzen, iaz baino 9 herri gehiagotan" eta ekainaren 30era arte luzatuko da.

Urtero bezala parte hartu ahal izateko 3 pausu jarraitu beharko dira:

Lehenengo pausoa **irakurtzea** da; euskaraz irakurtzea. Horretarako, herriko liburutegi publikora joan eta euskarazko edozein liburu maileguan eskatu ahal izango da.

Liburu irakurriz **gozatu**, liburutegira bueltatu, eta fitxa siple bat bete beharko da: zein izan den irakurritako liburua, zer inpresio eman digun eta abar. Fitxa

hori beteta, liburuzainak erosketa-txekea emango digu, hitzartutako liburu dena erabiltzeko.

Azken pausua, liburu **oparitzea** da: lagun bati, senide bati edo norbere buruari. Liburutegian jasotako txartelarekin, euskarazko beste edozein liburu erosteko %25eko deskontua jasoko da, %50a euskaldunon elkartearen kidea izanez gero (gure kasuan, Euskal Birusa edo Orraitiokoa).

### Aurkezpena

Euskal Herri osoan burutzen den kanpaina honen aurkezpena apirilaren 18an burutu zen eta bertan gertuko lagunak izan ziren: Manuel Moreno (Topaguneko kidea eta egitasmoko arduraduna), Igone Amesti (Ermuko Euskal Birusa Euskara Elkarteko kide mallabitarra), Sara Gago (Ermuko Udal Liburutegiko arduraduna) eta bestalde Gaizka



Ermuarrak, mallabitarrak... aurkezpen ofizialerako irudi.

Olabarri (Durangoko Hitz liburu dendako kidea).

Ermuan, Euskal Birusak antolatzen du kanpaina hau Udal Liburutegiarekin elkarlanean eta Udaleko Euskara Sailaren babesarekin; Mallabian, berriz, Orraitiok antolatzen du, Ikastetxeko Guraso Elkarteen eta Liburutegiaren laguntzarekin. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila zein Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien babesarekin burutzen da ekimena.

"Aurreko urteetan ikusi denez, kanpainak eragin positiboa du herritarrek liburutegi publikoan egiten duten euskarazko liburu mailegu erabileran - diote Topaguneko arduradunek. Izan ere, egitasmoaren helburuetariko bat da euskaltzaleak liburutegi publikoan erabiltzaile bihurtzea. Era berean, ekimenak liburuaren salmentan izaten duen eragina ere kontuan hartzea da".

**NEREA IÑIGUEZ  
HORTZ KLINIKA**

San Inazio 4 - Ermua  
943 030 512 / niklinika@gmail.com

**T XALAPARTA  
ABERNA**

**Eta asteburuetan  
pintxoak, afariak  
eta bokatak!**

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGYAK 943 030 299**

**OSASUNA • ESTETIKA  
EDERTASUNA**

*Marfil*

*Ile-apaindegi bat baino gehiago!!*

Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

**J. LUCAS**

**PINTURA EN GENERAL**

**630 22 51 36**

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOAK

**EGANA**


ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK  
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA  
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

Ziriako Ortiz de Zarate 1928ko ekainaren 7an jaio zen, Eibarren. Elorretan hazi eta Ermuan bizi izan zen. Iazko martxoan herri kiroletako plazak eta irrati esatari lanak uzten zituela iragarri zuen, 60 urteko ibilbide luze eta emankorra egin ondoren. Matxoaren 14an betirako agur esan zigun.

# Agur Ziriako!



Argazkiak:  
Virginia Alberdi  
Estibalitz González  
Asier Ibaibarriaga



- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

**MUSIKA  
ESKOLA**

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • [albokamusikaeskola@hotmail.com](mailto:albokamusikaeskola@hotmail.com)

*Komunitateak*

## San Pelayo

*Aholkularitza  
juridikoa*

Tel. /Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua



**URDAITEGIA - CHARCUTERIA**  
**MÄYTE**  
Plaza del Mercado  
Tel. 17 24 12  
**ERMUA**

# SILVIA ONAINDIA

**- Nola oroitzen duzu zure gaztaroa?**

Pub-etara eta hondartzara joaten nintzen lagunekin.

**- Ikasketarik?**

Bai. Klinikako laguntzaile ikasketak egin nituen, eta lau hizkuntza ikasi ere: ingelera, alemana, katalana eta espainiera.

**- Lanean noiz hasi zinen?**

17 urterekin Bartzelonako Las Ramblaseko oroigarri denda batean hasi nintzen lanean, ikasitako hizkuntzak praktikan jartzeko.

**- Euskararekin moldatzen al zara?**

Hizkuntza ulertzen dut senarraren senideak euskaldunak direlako, baina esaldiak eratzeko kostatzen zait.

**- Zenbat denbora darama zuek harakin lanetan?**

Hiru urte besterik ez.

**- Zer moduz moldatzen zarete Ermuan?**

Integratuta eta onartua sentitzen gara, herrikoak ez izan arren, oso ondo hartu gaituztelako!

**- Zein ordutan hasten zara lanean?**

Normalean 8ak aldera hasten naiz, baina txorizoa edo odolostea egin behar denean lehenago etorri behar.

**- Harategiak izen ona duela entzun dut, zein da arrakastaren gakoa?**

Besteekin ez lehiatzea, eta produktuak garai batean egiten ziren moduan eginez gure txokoa bilatzea.



**Silvia Onaindia Cepeda duela 47 urte jaio zen Sitgesen (Bartzelona), aitak eta aitonak Ibarruritik Kataluniara emigratu ostean. Orain, Muxikan bizi da bere senarrarekin eta egunero joan etorria egiten dute Ermuko Onaindia harategian jarduteko.**

**- Bezeroek zer produktu kontsumitzen dute gehien?**

Txuletak, kailuak, txistorra, txorizoa eta odolostea.

**- Euskal Herritik kanpo salmentarik ba al duzue?**

Bai, ahoz- ahoko publizitateari esker txistorra Malagan, Zaragozan eta Bartzelonan saltzen dugu.

**- Zer egiten duzu burua la-saitzeko?**

Eguraldi ona dagoenean, hiru txakurrak hartu eta paseatzera joaten naiz.

**- Nola ezagutu zenuen bikotea?**

Aspalditik ezagutzen dugu elkar, senide komunak ditugulako.

**- Maitasunari eusteko errezeta?**

Elkar errespetatzea, azken finean maitasuna hartu-eman delako.

**- Seme-alabarik bai?**

Ez, baina nik hezitako iloba dut Katalunian.

**- Biziorik?**

Denetarik jatea eta ondo pasatzea.

**- Zein musika estilo gustatzen zaizu?**

Heavy metal, metal thrash eta opera.

**- Musikari aipagarririk?**

Maria Callas, Dame Joan Sutherland, Mirella Freni, Yngwie Malmsteen, Frank Zappa...

**- Bidaia bat nora?**

Familia bisitatzera, faltan botatzen ditut-eta.

**- Futbol zalea zara?**

Noski, Barça jarraitzen dut!

**- Zein txoko bisitatu duzu?**

Hiru urtez Suitzan egon nintzen.

**- Mendi aipagarririk?**

Montseny, Oiz, Gorbeia, Anboto eta el de la moto! (barre artean).

**- Zerk urduritzen zaitu?**

Intolerantziak eta heziketa faltak.

**- Zer falta da Ermuan?**

Zubiaurre kalea berriro zabaltzea, negozioa berrendartu dadin.

**- Zer miresten duzu pertsona batengan?**

Irekia eta tolerantzia izatea.

**- Lagun bati zer eskatzen diozu?**

Fideltasuna.

**- Bizitzak zer irakatsi dizu?**

Esfortzu barik ezin dela ezer lortu!

**- Gomendiorik?**

Apirilaren 23an Bartzelonara joatea gomendatzen dut Diada de Sant Jordi (San Jurgi Eguna) ospatzeko.

Leire Elustondo



**CITROËN  
AUTOS AMEDI**

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.  
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14



**SAGARDUI  
poltsak**

Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305



**D. ARRAL 97 S.L.**  
Tfno. 943 176 075 - Fax: 943 170 892  
arral@arral97.com  
www.arral97.com

**Ardo banatzailea:**  
Luis Cañas  
Cantosán Verdejo  
Viña 65 Verdejo  
Amaren  
Añada Real  
Cava Oriol Rosell  
Nitida  
Montepinos



## Basilio Izquierdo, Arku-Tiro Instintiboko Euskadi eta Bizkaiko txapeliduna: “Nire eskuekin egindako arkuarekin irabazi ditut txapelketa biak”

Barakaldoko Lasesarre kiroldegian irabazi zuen Basilio Euskadiko txapelketa, otsailaren 3an. Sasoi onean dabil, bi hilabete lehenengo Bizkaiko txapelidun izendatu baitzuten Bermeon, abenduaren 16an. Kirol ezezaguna den arren, Ermuan Arku-Tiro taldea dago 1999tik.

**- Aretoko arku-tiro tradizional instintiboan lortu dituzu azken garaipenak. Zertan datza kirol modalitate hori?**

Arku-tiro mota ezberdinak daude eta nik praktikatzeko dudak honetan arkuak ezin dute inongo osagarrikeria eraman: ez bisorerik, ez egonkorgailurik, ez presio botoirik... horregatik deitzen da instintiboa. Gainera, arkuaren gorputzak egurrezkoa izan behar du, ‘palak’ eusteko ezinbestekoak diren metalazko pieza izan ezik. Azkenik, tiroak areto batean egin behar dira, hau da, estalpean, dianatik 18 metrora.

**- Arkuak garestiak dira?**

Nahi duzuna gastatu dezakezu, 300 eurotik 2.000 eurora, neurrira egina izatea nahi baduzu, larruarekin... Nik 500 euroko arku erosi nuen duela 2 urte, baina arazoak izan nituen eta gaur egun erabiltzen dudana arku

nik egindakoa da. Egurra lantzen hasi nintzen, pazientzia handiarekin, eta aurreko arkuaren karbonozuntzeko ‘palak’ aprobetxatu nituen.

**- Zure garaipena talde garaipena izan dela aitortu duzu. Zer zor diozu Betiondo taldeari?**

Dena. Eurek hemen egongo ez balira, ni ere ez nintzateke egongo. Horrez gain, taldeko kide bat arotza da eta arkuaren gorputzak egiten hasi gara. Arkuaren soka ere guk egiten dugu, geziak... Gainera, Euskadiko txapelketan taldeko José Mari Muñoz 4. postuan geratu zen.

**- Zeintzuk baldintza bete behar ditu arku-tiratzailerik on batek?**

Forma fisiko eta teknika ona izatea. Oso kirol errepikakorra da: gauza bera egin behar da behin eta berriz, eskuen kokapena milimetro bat mugitu gabe. Kontzentratuta egon behar da, gezia baino ez duzu pentsatu behar. Korean daude tiro-jaurtikitzailerik hoberenak.

**- Eta ikusmenak eta pultsu onak ez dauka garrantzirik?**



Tira, bistak ez hainbeste, teknikaz eta erreferentziez baliatu behar zarela. Pultsu ona izateak aldiz, berebiziko garrantzia du.

**- Zenbat denbora daramazu arkuarekin?**

Duela 30 urte hasi nintzen. Semeak txikiak zirenean Bilboko Gabonetako Haur Parkera eraman nituen eta bertan arku-tiroa probatzeko stand bat zegoen. Horren ostean bi hilabetez Barakaldoko klub batean ikastaroa egin nuen, baina oso zaila zen astean bi egunez bertaraino joatea eta laga nuen. 1999an Mendiko Bizikletako Ermuko Klubaren arduradun nintzen eta jai batzorde batean arku-tiro kluba sortu nahi zuen mutil taldea ezagutu nuen.

**- Nahi duen orok praktikatuz dezake arku-tiroa?**

Arriskutsua gerta daitekeenez, ez diegu 11 urtetik beharako umeei gomendatzen baina hortik aurrera edozeinek probatu dezake. Guk hasiberrirentzako arku bereziak ditugu eta 2 hilabetez nahi duen orori lagatzen dizkiogu. Kontua da kirol berezia dela, emaitzak ez direlako berehala jasotzen. Askotan entrenatu behar da, norbere buruarekin oso kritiko izan, eta batzuk segituan asperitzen dira.

**- Non entrenatzen duzue?**

Anaitasuna Ikastolako gimnasioan eta hemendik eskerrak eman nahi dizkiegu bertako arduradunei eta Ermuko Udalarari.

Dorleta Vidal



**Pub SCORPIO**



Zubiaurre, 21  
ERMUA

**PUB YOMY**



**Zubiaurre  
kalearen  
bihotzean**

# Mallabia eta Ermua Bizirik nahi ditugu

**K**risiak bazterketa soziala, inposizioak eta pobrezia ekarri dio gizartearen sektore bati eta gazte, emakume, etorkin, langabetu, erretiratu eta langileengan du eragina batez ere. Mobilizatzeko garaia da, herrian bizi dugun egoera larriaz kontziente izan behar dugu guztiok, ezin gara beste alde batera begira egon. Herrian ditugun gaztazka ezberdinei aurre egiteko indarrak batzeko garaia da eta argi esango dugu: ez dugu kaleratze bat bera ere gehiago onartuko, ezta etxe desjabetzerik ere, ez dugu inolako mehatxurik onartuko, enpresa bat ixtea, inposizioak, komertzioak ixtea, hau guztia gelditu behar dugu! Krisia ez da gure erruz sortu, urte luzetan poltsikoak bete dituzten horiek sortu dute krisia, lapurtu egin digute eta lapurtzen jarraitzen dute, lotsarik gabe eta

lasaitasun osoz gainera. Eta egoera guk ordaintzea nahi dute.

Gertatzen ari denak guztiongan du eragina: langabezian, etxebizitzan, pentsioetan, hezkuntzan, osasun zerbitzuetan, gizon eta emakumeen berdintasun politikean, instituzioetan, langileengan, autonomoengan...

Langabeziari dagokionez, esaterako, Ermuan eta Mallabian langabetu kopurua hirukoiztu egin da azken 7 urteotan. Gazteen langabezi tasa izugarri igo da eta etorkizuna beltz ikusten dute. Posible al da gaur egun lanpostu duina lortzea? Suntsitutako enpleguaren %75ak 30 urtetik beherako gazteei eragin die eta adin honetako langabeziaren tasa %40an dago.

Hipoteka lege berria behar dugu, erretiro duina eta baita menpekotasunaren legeak indarrean jarraitzea ere, eta kalitatezko Osasun



*Jose Antonio Muñoz 'Gordo' eta Ermua eta Mallabia Bizirik taldea*

eta Hezkuntza publikoa. Instituzioek urte luzetan dirua xahutu dute inongo kontrolrik gabe, patronalaren lana txalotu eta enplegu suntsipenari frenorik ipini ez. Orain gerrikoa estutzeko esaten digute... lehenagotik beraiek hori egin balute, ez geundekete egoera honetan!

Lanaren eta aberastasunaren banaketan oinarritutako gizarte eredu baterantz egin behar dugu eta nik eta dokumentu hau sinatzen duten enpresa komite, eragile sozial eta kolektiboek apirilaren 27an egingo den manifestazioan parte hartzeko gonbitea egin nahi dizugu, 17.00etan Ermuko plazatik irtenda.

**Instituzioek urte luzetan dirua xahutu dute... orain gerrikoa estutzeko esaten digute**

**Enter**  
INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea  
Tel. 943 17 90 37  
e-maila: enter-i@arrakis.es

optika  
**ITZE**

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK  
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51



**MUGA**

San Pelaio 4A behea  
Telefonoa: 17 64 77  
ERMUA

**ARRIETA CORDEVI**

Elektratresnak, telebistak, bideoak, musika aparatuak...

...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

**MALLABIKO Herriko taberna**

Eguneko platera (3€), menua bokatak, plater konbinatuak, pintxoak, kazolak, arraina eta txuleta parrillan (enkarguz)...

EUSKAL PRESO ETA IHESLARIA

ETXERA

943 174 952 (asteartetan itxita)



Maiatzaren 16an (Paul)  
Maiatzaren 14an (Aner)  
Zorionak bioi ama eta aitaren partez.



Martxoaren 26an  
Zorionak Unax zure  
2. urtebetetzean  
aita, ama eta  
guztionez partez.  
Musu handi bat.



Apirilaren 23an  
Zorionak Bea.  
Ondo pasa zure  
egunean eta  
horren ostean  
datozen  
guztietan.



Apirilaren 26an  
Zorionak Adur zure  
lehenengo  
urtebetetzean zure  
gurasoen partez.



Apirilaren 13an  
Zorionak Gaizka  
eta musu handi  
bat Ixone, aita eta  
amaren partez.  
Segi horrela  
txapeldun!!!




Apirilaren 21ean  
Berdin dio aurten  
30 urte betetzen  
badituzu, gero eta  
ederragoa zaudela-  
ko. Zorionak  
Josemonen partez.



Apirilaren 27an  
Zorionak Maitetxu.  
Ondo pasa zure  
eguna. Patxo  
handi bat Ainhoa,  
ama eta aitaren  
partez.



Martxoaren 21ean  
Ongi etorri Jone!!!  
Muxu handi bat  
etxekeon partez.



Maiatzaren 5ean  
Zorionak Bingen  
zure urtebetetze-  
an familia osoaren  
partez.



Apirilaren 7an  
Zorionak June  
denon partez,  
jator-jator  
jarraitu.



Apirilaren 26an  
Zorionak Oihan  
zure 4.  
urtebetetzean!!  
Asko maite  
zaitugu!!!



Apirilaren 18an  
Zorionak Luken!!!  
Ondo pasa zure  
egunean, patxo  
handi bat zure  
famiariaren partez.

Hurrengo  
zenbakirako  
azken eguna:  
**MAIATZAREN**  
15a

**TXINDURRI**  
**TALDEA**  
**Tokian**  
**tokiko**

**Harategia**

**M. LAZKANO**

**BERTOKO OKELAK**  
*Geure Baserrian*  
*Hazitako Txalak*  
GEUK GIZENDUTAKO  
ABELTZANTZA  
Merkatua, 36-37 zbk.k  
Tfnoa. 943 17 05 84  
**Ermua**

**PRO**

-ARRAINDEGIA  
-ITSASKIAK  
-ARRAIN FRESKOAK ETA  
IZOZTUAK

**ESKAINITZA BEREZIA**  
**OSTRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua  
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)  
" 17 24 33 (etxea)  
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59  
ERMUA

hamburguesería  
**TITANIK**

*Pintxo dastaketa*  
*poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

## MALLABIA 1960


Argazki honetan agertzen diren gehienak Alfako langileak dira, Ambrosio Solozabalen despedida ospatzen Hanbreko taberna aurrean. Goitik hasita 1. ilara: Candido Aranburu, Patxi Urkidi, Javier Elgezua, Ignacio Aranburu, Gregorio Aranburu, Franziska Garitagoitia, Felipe Astarloa, (eibartarra), Pablo Agirregomezkorta, eta Lazaro Zamakola. 2. ilara: Celestino Solozabal, Eugenio Aranburu, Teodoro Arana, Modesto Solozabal, Jose Onaindia, Migel Azpiri, Jacinto Basterretxea, Txomin Arana, (eibartarra), Jose Zenikazelaia, Eloi Zelaieta, Jose Luis Izarra, (eibartarra), Facundo Garitagoitia, Jose Totorika, Pedro Gerrikabeitia, Julian Onaindia, Felix Ormaetxea, Bernardo Onaindia, Julian Bilbao, Jacinto Solozabal eta Tomas Sarasua. 3. ilara: Nieves Arriaga, Inocencio Aranburu, Jose Luis Garitagoitia, Lucio Totorika, Ambrosio Solozabal, Maritxu Garitagoitia, Julian Pagaldai, Jose Elgezua, Javier Uriarte eta Bernardo Alberdi. 4. ilara: Rosita Zelaieta, Isidro Olalde, Bixente Aranburu, Santi Aranburu, Esteban Onaindia, (eibartarra), Andres Aranburu, Luis (Eibartarra, Alfako portuer), Bixente Aranburu, Pedro Mari Garitaonaindia, Carlos Uzuriaga, Tomas Aranburu eta Jose Antonio Ormaetxea.



## ERMUA 1954



Plazan ezpata-dantzariak eta udaletxe zaharreko balkoian ikusle zeuden, ezkerretik esku-mara hasita: Nicolas Mugerza eta Edurne Idigoras, bien artean Josune Mugerza alaba dutela; Margarita eta Gerardo Ormaetxea neba-arrebak; 'Ondarru' dantza erakustailea; Don Diego abadea; Bernardo San Ildefonso, Jesusa Izagirre erreina eta Javi San Ildefonso lobarekin. Jesus Idigoras da eskuman dagoena. Betidanik egondako balkoi horri 1940 urtean musika bandarentzat kiosko karratu bat gehitu zitzaion, erretratuaren ezker aldean zatitxo bat ikusten zaio-larik.



### TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2  
Tel. 943 17 66 34  
Tel. mugikorra 630 01 13 41  
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1  
Tel. 943 17 98 60  
48260 ERMUA (Bizkaia)

Askotan, konponketa erantzun egokiena da



**AUTO-REPARACIONES  
AREITIO, S.L.**

634 errepide nazionala - 69,5 km.a Areitio Gaina 15 · 48269 - Mallabia  
Bulegoa: 943 17 51 00 / Tailerra: 943 17 08 06 / Fax: 943 17 20 15  
www.areiotor.com

administracion@areiotor.com / areiotor@areiotor.com

**Duela ia 20 urte jaio ziren harreman pertsonalak sortzeko lehen webguneak. Gaur egun horrelako atari dezente dago (meetic, e-darling, kaixomaitia ) eta jaio eta sendotzen diren harremanen ehuneko potoloak, seguruenik, Interneten izango du sorburua gaur egun.**

### Internet erabili duzu sekula jendea ezagutzeko?



Bai, jendea ezagutzeko Internet erabili izan dut eta egia esan oso eraginkorra izan da. Badoo, Facebook eta horrelakoak erabili izan ditut: Mutil baten argazkia ikusi, berbetan hasi eta azkenean, egun batean, berarekin geratzen zara.

**Verónica Vaz, 29 urte**



Bai, jendea ezagutzeko eta bikotekidea ezagutzeko nire esku dagoen guztia erabiliko nuke. Ez dut horrelako webgunerik ezagutzen, baina ez nuke erabiltzeko inongo arazorik izango.

**Jose Antonio Muñoz, 47 urte**



Ez nuke erabiliko, oso hotza delako. Ez dut horrelako webgunerik ezagutzen, ezta webgune horien bitartez ezagutu den bikoterik ere. Badakit nire lagun bat horretan ibiltzen dela, Facebookaren bitartez, ez dakit horretarako atal berezia izango duen edo...

**Alejandro Martínez, 43 urte**



Bai, izan ere erabiltzen dut. Ez naiz berezko webguneetara sartzen, baina Facebookaren bitartez lagunak egin ditzakezu eta lagunak lagunak ezagutu... Interneteko kontuetan oso trebea ez banaiz ere, horretan trasteatzen ibiltzen naiz.

**Simona Cascán, 52 urte**



- Hor doa Patxi, 'cita a ciegas' batean...

-Hain erraza zela jakin izan bagenu...

**ZINEA**

4tik 6ra.

11tik 13ra.

18tik 20ra.

25etik 27ra.

Zehaztu gabeko filmek.  
Ermua Antzokian.

**UMEENTZAKO ZINEA**

Hilak 5.

Hilak 12.

Hilak 19.

Hilak 26.

17:00etan.

Zehaztu gabeko filmek.  
Ermua Antzokian.

**ZINE-KLUBA**

Hilak 2.

Hilak 9.

Hilak 16.

Hilak 23.

Hilak 30.

20:30ean.

Zehaztu gabeko filmek.  
Ermua Antzokian.

**ANTZERKIA**

Hilak 3:

'Encerrona', Pepe Viyuelaren eskutik.  
22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10€

**MUSIKA**

Hilak 8:

Kalejira: Irulitxa txaranga (urteurrena) 19:00etan.

Hilak 11:

Rock kontzertua: Ero + Síndrome Peter Pank (Aurre-VertigoRock) 22:00etan.  
Lurpe tabernan.

Hilak 12:

Bizkaiko Haur Kantari txapelketa: kanporaketak. 12:00etan. Sarrera: 5€

Hilak 17:

Rock Kontzertua: La muerte sin capucha + Skandalo Público (Aurre-VertigoRock). 21:30ean.  
Eskailerapekon.

Hilak 18:

Vértigo Rock: Non Servium + Stupenda Jones + Multa + Red Blaze + Cohen + Alerta + Akoda,s Bozine + Andrabanda feminista + Khous. 16:30etik aurrera. Plazan eta inguruko kaleetan.

Hilak 25:

Kalejira: Ermuan kantuan. 12:30ean.  
Orbe Kardenalaren plazatik.

**ERAKUSKETAK**

Hilaren 12ra arte:

Margoak: Josette Dacosta. 18:00etatik 20:00etara. Lobiano Kultur Gunean.

Hilaren 6tik 31ra arte:

Gizonok berdintasunaren alde, gizonok sexismoaren kontra. Lanegunetan 9:30etatik 13:30etara eta 16:30etatik 20:00etara.  
Emakumearen Topalekuan.

Hilaren 24tik 2ra:

Margoak eta egurrezko eskulturak. 18:00etatik. 20:00etara. Lobiano Kultur Gunean.

Hilak 11:

Haurrentzako tailerrak (Euskal liburu eta disko azoka). 11:00etan.  
Orbe Kardenalaren plazan.

**BESTELAKOAK**

Hilaren 5era arte:

Galiziako letreei buruzko jardunaldiak: hainbat ekitaldi. Galiziako Zentroan eta Orbe Kardenalaren plazan.

Hilaren 9tik 12ra arte:

Euskal liburu eta disko azoka. Goizez eta arratsaldez. Orbe Kardenalaren plazan.

Hilak 12:

Bertso saioa (Euskal liburu eta disko azoka). 13:00etan. Orbe Kardenalaren plazan.

Hilaren 23tik 2ra:

Gaztela-Mantxako Kultur astea: hainbat ekitaldi. Gaztela-Mantxako Zentroan.

Hilak 25:

Gaua irekia: Hainbat ekitaldi hainbat lekutan.

Patxi López

**san pelayo**  
clínica dental hortz klinika

San Pelayo 5, 1º  
Ermua (Bizkaia)

Olatz Garcia Arregui

943 17 04 04

**ILEAPAINDEGIA**

**Izaskun**

Goienkale, 9 (Plaza San Martín)  
48260 Ermua Bizkaia  
Tel. 943.17.66.90

**ILEAPAINDEGIA**

**Infreñu Taberna**

Kardenal Orbe plaza  
943 174584  
www.infretaberna.com

**LONDON**

Bar London  
Komentukua 2, Ermua  
Tlf: 943173312

**Pub Dakota**

Probaleku, z/g  
Ermua (Bizkaia)  
dakotaermua@hotmail.com

# IES UNIBHI

EIBAR-ERMUA

TEL: 943 20 84 44  
www.iesunibhi.com  
uni@iesunibhi.com

twitter @UniEibarErmua  
www.facebook.com/iesunibhi

**AUKERA ZABALENA!**

**AURREMATRIKULA: MAIATZAREN 2TIK 14RA**

**HEZIKETA ESKAINTZA:  
A ETA D EREDUAK**

**BATXILERGOAK**

Zientziak eta Teknologia  
Humanitateak eta gizarte zientziak  
Aukerako irakasgaien eskaintza zabalena

**PROIEKTUAK ETA JARDUERAK**

Nazioarteko ikasle-trukeak  
UNI Encounter  
Hizkuntzaren normalkuntza  
Osasunarentzako programa  
Urrats Bat  
Agenda 21  
Informatika ingelesez



## LA SALLE AZITAIN IKASTETXEA

2013-2014 ikasturterako eskaintza

**BATXILERGOAK (A eta D)**

**ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIA / GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK**

**Badugu  
ikasteko  
leku bat  
zuretzat!**

La  Salle  
Eibar

  
Euskadi  
2009

943 121 698

**maiatzaren  
2tik 14ra**

Formigalen, Neguan elurra esaten da,  
Udan **English Fun** esaten da.



Mantenu osoa  
Eskolak  
Talde-jarduerak  
Ingelesa ikasteko murgiltze-osoia

Ekainaren 30etik, uztailaren 13ra  
8 eta 15 urte bitarteko umeentzat  
Tenako bailaran, Aragoiko Piriniotan

## Udalekuak 2013 Ingelesez eta Euskaraz

Akerlei Hiri Udalekuak 2013

6 eta 10 urte bitarteko umeentzat  
Ekainaren 24tik uztailaren 19ra arte  
9:30etik 13:30era  
Izena emateko azken eguna:  
Ekainaren 7a (ostirala)



Maiatzaren 15a baino  
lehen izena ematen baduzu,  
deskontua izango duzu

Deitu edo etorri gure zentzora

**Akerlei**  
idiomas

Bizkaia etorbidea 5  
943 17 66 32

KOMERTZIO AISIA ETA KULTURAREN

# GAUA ZABALIK



komertzioak zabalik

22.30 - 01.30 h.

ERMUA

MAIATZAREN 25ean

